



OIARTZUNGO
UDALA

513 ZB.KO DEKRETUA.



Oiartzungo haranean, bi mila eta bederatziko ekainaren 12an

2009ko maiatzaren 26an Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeak Oiartzungo Udal Ludoteka, Gazte Informazio Puntua eta Udaleku Irekien zerbitzua TTIRUKI ASISIALDIA ELKARTEari behin-behingo esleitzea erabaki zuen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 eta 96.2.b) artikuluekin adostasunean, hamar egun balioduneko epea eman zitzaien behin-betiko bermea ezar zezan eta Gizarte Segurantzaren eta zerga betebeharretan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzan, eta gainera, beste edozein konpromiso egiaztatzeko.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikulua 3. parrafoaren eta 96.2.b) artikulua arabera, aurreko epea igaro eta gehienez bost egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin-betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean TTIRUKI ASISIALDIA ELKARTEak aurkeztu beharrekoak aurkeztu dituzenez, Oiartzungo Udal Ludotekaren, Gazte Informazio Puntuaren eta Udaleku Irekien zerbitzuaren kontratua TTIRUKI ASISIALDIA ELKARTEari behin-betikoz esleitzea proposatzen da 133.864,82 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 2 urteko egikaritze epearekin.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

OIARTZUNGO
UDALA

IDAZKARITZA
OIARTZUNGO
UDALA